

info  ZIBERNEGOZIOAREN GAINBEHERA

Puntucom porrota


Puntucom enpresak kinkan iazko kolpea baretuta

Jabi Zabala • Bilbo

IAZKO gorakadaren zurrunbiloan, bazirudien dena puntucom izango zela, ekonomiaren gune nagusia Internet izango zela. Baina guztiz espekulatiboa den mundu honek are espekulatiboagoa den burtsaren sostengua zuen oinarri nagusi. Oreka ipintzeko, orde, ekonomia tradizionala etorri da burtsan puntucom enpresen beherakadarekin.

Interneten sortutako enpresa ekimenei, *puntucom* edo *startup* esaten zaie. Epe laburrean errentagarriak ez izateko sortu izan dira orain arte startup gehienak, eta Amazon aitzindaritik hasita, horixe jaki behar zuten alde aurretik inbertsoreek dirua jartzera animatzeko, alegia irabaziak gertoxago etorriko direla. Hala ere, Michael Wolf arloko enpresari ohiaren arabera, «haien errakuntza nagusia hori izan da, ohiko enpresatik oso diferenteak zirela pentsatzea». Euren buruak saltzeko, ekonomia berria Interneten sortutako arau berriek gidatzen zutela argudiatzen zuten puntucom enpresek. Baina 2000. urtean enpresa hauek irabaziak sortzeko ezintasuna agerian utzi zuten, eta inbertsoreak dirua ukatzen hasi ziren.

Startup txikien kasutik pixka bat ezberdina da enpresa handien egoera. Azken hauei, gehienbat burtsaren gorabeherak egin diete kalte, puztu-hustu etengabe horretan zimurak agertu baitzaizkie baloi erraldoi



2000. urtean enpresok irabaziak sortzeko ezintasuna erakutsi dute

horiei. Nasdaq famatuaren inguruan hautsezko inperio makalak sortu dira (horren lekuko dugu Terra Lycos eta bere gainbehera bortitza). Nasdaq indize teknologikoa EEBBetako burtsa berezia da, balio teknologiko delakoena soilik. Inbertsoreak arrisku handiko ekonomia era-

bat espekulatibo horretaz go-gaitu eta Nasdaqetik sosak kendu dituzte, eta betiko enpresetara bihurtu. Iazko uda izan zen mugarrira, gutxi gorabehera. Udaberria arteko gorakada udan jaisten hasi zen, eta udagoienak sareko enpresa askoren gainbehera ekarri du, arbolen orriak balira bezala. Enpresa askok langileak kaleratu edo ateak itxi dituzte: Netjuice, Quepasa, Dobleclick, Baquia eta beste asko, arlo guztieta-koak. 2000. urtean 495 puntucom enpresak 41.515 lagun kaleratu zuten, Challenger, Gray and Christmas analisi enpresaren arabera.

Krisiak jarraituko du

Adituon ustez, 2001. urte honetan krisia sakonduko da sareko negozioetan. Burtsatik, aldiz, beherakadaren ostean gorakada itzela izango dela diote, baina oraindik zutunik diren enpresek gorabehera horiek jasango dituzten ez dago batere argi. Badago arazoan negozioa aurkitu duenik: startup batekin porrot egin zuen enpresari batek startupfailures.com sortu du, antzeko egoera bizi duten beste enpresarietako sostengua, aholkuak eta, besterik ezean, kontsolamendua emateko. Eta ondo doakio, antza.


www.startupfailures.com

WEBGUNEAK

Gorrentzako web arrakastatsua

Gipuzkoan egiten den Planeta visual atariak milioi erdi bisita jaso ditu, abiatu zenez geroztik (duela sei hilabete). Testuen eta ikonen bidez gorra informazioaren gizartean txertatzeko xedea duen atari honek harrera ona izan du. Harrera horren erakusgarri dira hainbat sariketatik Planeta visual atariak erdietsi dituen aipamen bereziak.

Planeta visual
www.planetavisual.com



Auñamendi entziklopedia

Iragarrita zegoen bezala, Auñamendi entziklopedia-aren 50 liburua Interneten ezarri zituen Eusko Ikaskuntzak. Paperezko edizioan aurki dezakegun informazio hori guztia pantailara ekartzeko moduan ezarri zuten. Alderdik negatiboa, entziklopediaren interface ezerosoa zegoen, eta webgunean berau aurkitzeko zailtasuna. Bidea aurkitzeko orrialde nagusian Berriak atalean klik egin behar genuen. Digitalizazio lan handi horrek erantzuna izan zuen internauten aldetik, 16.000 kontsulta egin baitziren lehenengo egunetan Eusko Ikaskuntzak adierazitakoaren arabera. Hala ere, Espainiako prentsan Auñamendiren edukia kritikatuz agertutako hainbat informazioaren ostean, Nafarroako Gobernuak diru laguntza ukatu dio elkarteari. Ondoren Eusko Ikaskuntzak entziklopedia saretik kentzea erabaki du, hainbat eduki berrikusi bitartean.

Auñamendi Entziklopedia
www.eusko-ikaskuntza.org/Aunam

info  BILBAO FOROA

Zibernegozioen foroa pribatizatze saioa

Interneteko ekonomia berria inbertsoreak eta startup baten proiektua dutenak elkarrekin harremanetan jartzeko foroak antolatuta dira EEBBetan eta Europako leku askotan. *First Tuesday* izenaz ezagunak dira hilean behin egin ohi diren bilerak, eztabaida foro elektronikoekin konbinatuta. Bilbon ere iazko udaberriko loraldian abian jarri zen ekimen hori, *Foro Internet Bilbao* izenarekin. Orduantxe ezagutu zituen foroak bere ordurik onenak, munduan *e-business* delako guztiarekin gertatu den bezala. Ekimen independente eta parte-hartzaile bezala abian jarri zen ekimenak Merkataritza

Ganberaren eta enpresa batzuen laguntza txikiek aurrera egin du. Bertan, Internet-rako negozio ideien bat zuenak bere proiektua azaldu ahal izan du jendaurrean eta Talde bezalako inbertsoreak bertan izan dira, interesgarritzat jo dituzten proiektuak diruz babesteko.

Baina gatazka sortu da foroan dirua agertu denean. Erakunde batzuek diru laguntza eman eta enpresa zenbaitek berau babesteko prest azaldu ostean, foroa abian jarri zuten batek, Rafael Tamayok, foroa enpresa pribatu bihurtu du. Gainera, eGroups-en bidez kudeatzen den foro-bilbao

eztabaida zerrendaren kontrola ez zuenez, beste zerrenda bat sortu du Tamayok, lehengoan zeuden harpidedun guztiak bertan sartuta. Portaera horrek eta inolako azalpenik eman ez izanak foro kide askoren kezak eragin ditu. Ezer azaldu edo galdetu gabe harpidetza egin izana eta foro birtualeko moderatzaile Jose Antonio del Moral kazetaria baztertzeko xedea salatu dute gehienek.

Bilbao foroa
es.egroups.com/group/foro-bilbao
Taldea
www.talde.com
Merkataritza Ganbera
www.camaracombilbao.es